

LANKIDETZA HITZARMENA

Bizkaiko Sendagileen Elkartea
OSATZEN-Familia eta Komunitate Medikuntzako Euskal
Elkartea

BIZKAIKO SENDAGILEEN ELKARTEAREN ETA OSATZEN-FAMILIA ETA KOMUNITATE MEDIKUNTZAKO EUSKAL ELKARTEAREN HARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.

Bilbon 2009ko urriaren 8an

BILDUTAKOAK:

Alde batetik, COSME NAVEDA POMPOSO, Bizkaiko Sendagileen Elkarteko PRESIDENTEA (aurrerantzean Elkartea), honen izenean eta berau ordezkatzan.

Beste aldetik CRISTINA DOMINGO RICO Osatzen-Familia eta Komunitate Medikuntzako Euskal Elkartearen PRESIDENTEA (aurreratzean Osatzen), honen izenean eta berau ordezkatzan.

ADIERAZTEN DUTE:

LEHENENGO.-

Bizkaiko Sendagileen Elkartea Elkarre Ofizialen Lege Orokorrek babesten duen Zuzenbide Publikoko Korporazioa da. Demokratikoki egituratua, ordezkari-izaera eta berezko lege-nortasuna dituen eta bere helburuen artean elkarre maila zientifiko, kultural eta sozialaren hobekuntza etengabea sustatzea da.

BIGARRRENA.-

Osatzenean gure elkartekideen gaitasun zientifikoak eta irakasle eta ikerketa gaitasunak hobetzeko eginkizuna duela, herritarrei arreta hobea eskaintzeko eta biztanleen osasuna hobetzeko, guzti hau balioa sortuz eta Familia Medikuntzaren etorkizuna sustatuz. Osatzenean dituen helburuen artean eguneratze zientifiko eta Euskal Herriko Familia Sendagileen ezagutzen kudeaketa eta osasunaren etorkizuna zaintzea dira, horrekin guztiarekin, Euskadiko biztanleen osasuna hobetzea lortzeko.

HIRUGARRRENA.-

Bi erakundeak etengabeko prestakuntza eskaintzen dutela, beraz helburu bateratuak dituztela ulertzen da eta jardura eta lankidetzaren linea bateratuak ezartzeak, Euskadiko biztanleen osasunean hobekuntza nabarmenak ekarriko lituzkeela

LAUGARRENA.-

Bi erakundeek, bien estatutu, antolakuntza eta ekonomia autonomiaren aintzatespenean oinarrituz lankidetzaz hitzarmen bat sinatu nahi dutela interes komuna duten gaiak lantzeko.

Adierazitakoa kontutan hartuta, honakoa HITZARTU dute bi aldeek: Lankidetzaz hitzarmen bat gauzatzea interes komuneak direla adostu den esparruetan lan-linea desberdinak aurrera eramateko. Horretarako:

LEHENENGO.- ICOMBi-k eta Osatzenek periodikoki adostasun prozesuak ezartzeko konpromisoa hartzen dute gaixotasunen prebentzioarekin eta osasuna sustatzearekin zerikusia duten jardueren inguruan, baita Familia Medikuntzan lan egiten duten profesionalentzako EZAGUTZAREN KUDEAKETA programa bat antolatzeko, ikuspuntu integral batetatik gaixotasun akutuak eta kronikoak dituzten pazienteen prebentzioen, tratamenduen eta jarraipenen inguruan. Kalitatezko ezagutzaren kudeaketa sustatuko da eta honen ezaugarri bereizgarriak lehiakortasun profesionala zaintzea eta Familia Medikuntzako oinarritzko aspektuak eztabaidatzeko foruak ahalbidetzea izango dira, bai esparru klinikoari dagokionez bai eta antolakuntzari eta kudeaketari dagokionez.

Lehentasuna emango zaie gai berriei: espezialitatean eragina duten aurrerapen zientifikoei eta aldaketa demografiko eta sozialek planteatzen dituzten arreta-erronka berriei.

Hitzarmen hau etengabeko prestakuntzaren, gizartean osasuna sustatzearen eta komunikazioaren inguruan hedatzen da. Horretarako ICOMBik Osasun Ikaskuntza Fundazioari honako hitzarmenaren etengabeko prestakuntzaren esparruan garatzeko gonbidapena luzatu dio.

BIGARRENA.- BATZORDE MISTO bat sortuko da erakunde parte hartzaile bakoitzak aukeratutako hiru ordezkarekin osatuta. Honen helburua, batera landu beharreko esparru komunak adostea, eta hitzarmena zaintzea eta honen erabilera egokia bermatzea da.

HIRUGARRENA.-Batzorde Mistoak batera egin beharreko ekintzak adostuko ditu eta honek ez du saihestuko, egokiak direla estimatzen den esparruetan, bi erakundeek beste ekintzak aurrera eramatea. Hala ere, batzordeak hauen harmonia eta koordinazioa bermatuko ditu, Komisio Misto honen bidez, aldibereotasuna ez emateko, bi erakundeei komunikazio arina emanez.

LAUGARRENA.- Autonomia printzipioaren aitzitik, aldeek hitzarmen honek hartzen dituen ekintzekin zerikusia duen informazioa elkartrukatzeko konpromisoa hartzen dute Batzorde Misto honen barruan.

AZKEN XEDAPENA

Hitzarmen honek urte bat iraungo du eta luzagarria izango da, aldeek, honen iraunaldia salatu ezean. Kasu horretan, programatutako konpromiso, gertaera eta ekintzak bete beharko lirateke.

Eta aipatu den guztiarekin ados daudela erakutsiz, Bizkaiko Sendagileen Elkarte Ofizialak eta OSATZEN -Familia eta Komunitate Medikuntzako Euskal Elkarteak bi aldiz sinatzen dute honako hitzarmena, goiburuan agertzen den datan.

Bizkaiko Sendagileen
Elkarte Ofizialaren aldetik

Cosme Naveda Pomposo jauna

OSATZENen aldetik

Cristina Domingo Rico andrea

I. ERANSKINA

Eranskin honetan bi erakundeek beraien hitzarmena aurrera eraman dezaketen zenbait esparru jasotzen dira.

Hitzarmen honi jarraiki eta garatuko diren ekintza bateratuak zeintzuk izango diren zehazteke, bi erakundeek gutxienez jarraian agertzen diren esparru eta jardueretan beraien konpromisoa erakutsiko dute 2009 urtean zehar:

1. Kerik Gabeko Astea 2009, SEMFYCek antolatua eta Osatzenek bere ekintza-eremuaren barruan garatua, xede horretarako programatutako jarduerak, ICOMBiko sendagileen bidez sustatuko dira.
2. ICOMBik bere hedatze egiturak erraztuko dizkio Osatzeni ahal duen neurrian.
3. ICOMBik bere areto eta egitura fisikoak jarriko ditu Osatzenen eskuetan jarduera hauek betiko baldintzetan eta hitzarmena sinatu duten elkarteen lehentasunezko izaerarekin aurrera eraman daitezen.
4. Osatzenek jarduera multzo bat erakutsiko du bere lan-taldeek bidez, Osasun Ikaskuntza Fundazioko etengabeko prestakuntzak duen eskaintzaren.
5. OSATZENek eta ICOMBik batera eta adostasunarekin lan egingo dute Gizarteari zuzendutako osasun mezuetan.
6. Bi erakundeek hitzarmen hau eta horretatik ondorioztatuko diren ekintzak beraien elkartekideen artean hedatzeko konpromisoa hartzen dute.